

**BAIMEN INFORMATUA ADINEZ NAGUSIAK DIRENEK "KIROL-TEKNIKARIEN ESKOLA ASFEDEBI KIIB-K" (KITEB)
ANTOLATUTAKO IKASTAROAN PARTE HARTU DEZATEN**

JAUN/ANDREA, adinez nagusia, helbideduna,
NAN edo Pasaporte zenbakiduna eta telefono zenbakiarekin, bere izenean

Idatzi honen bitartez, HURRENGOA ADIERAZTEN DU:

- 1.- Aurkezten diren pertsonak, desplazamendu, ostatu eta janari gastuak ikasleak ordaindu beharko dituenaren jakitun direla.
- 2.- KITEB ASFEDEBIREN aldetik, aurkezten diren pertsonen ikastaroaren ezaugarri, formakuntza jardueren, irakasleen, jarduerak aurrera burutzeko beharrezko materialen, ordutegien, portaera arauen, etab-en gaineko informazio nahikoa jaso dutela.
- 3.- Aurkezten diren pertsonen bere gain hartzen dute boluntarioki formakuntza jarduerak dakartzan arriskuak eta ondorioz KITEB ASFEDEBI eta bere langileria salbuesten dute formakuntza jardueratik jaso dezaketen lesio edo minak direla eta. Salbuespen horretan ez dira sartzen KITEB ASFEDEBIren edo bere langilearen arduragabekeriagatik gertatu bada.
- 4.- KITEB ASFEDEBIRI baimena ematen zaio elkarbizitzaren aurka doazen jarrera ez zuzen eta larriak emanez gero eta irakasleek dagozkion neurriak hartzen badituzte, hortik ondoriozta daitezkeen gastuak ikaslearen edo bere ordezkarien kontura izateko.
- 5.- Mediku eta gainontzeko osasun langileei KITEB ASFEDEBIN gerta daitezkeen istripu, gaixotasun edo lesioen aurrean eta formakuntzarako erabiltzen diren espazio eta tokietan, beharrezkoak ikasten dituzten tratamenduak ematea baimentzea.
- 6.- Ikasleak ez daulaka ikastaroa normaltasunez burutzea eragozten dion inolako gaixotasun edo lesiorik eta aurkezten direnek arduradunari edo ikastaroko tutoreari aldaketen berri eman beharko diela behin dokumentu hau sinatu eta gero.
- 7.- Ikasleak ez duela alergiarekin inolako medikamentuari (Alergia edo kontraindikazioen bat izanez gero adierazi ezazu OHARRAK atalean).
- 8.- KITEB ASFEDEBIRI baimentzea ikasleak dagokion publizitadedun materiala eta ekipazioa eraman dezan.
- 9.- Hasebetetze, ebaluazio edo ikasleei bidaliko zaizkien beste edozein inkesta anonimoki bete ahalko dela. Ikasleak bere datuak utziko balitu ondoren berarekin harremanetan jarri ahalko gara inkesten eta emandako formakuntzen gaineko iritziaz galdetzeko.

10.- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko datuak babestu eta eskubide digitalak bermatzen dituen betez, informatuak izan direla. Ikasleak edota bere ordezkari legalek erraztutako datuak KITEB ASFEDEBIREN titulartasuna duten fitxategietan sartuko direla, bere trataera burutzeko asmoz, hezkuntzan beharrezkoa den hirugarrenen lagapena barne, Hezkuntzako Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 23. xedapen gehigarriarriak ezarritakoa betez, bereziki bere ikasle, irakasle, ikastaro, bertaratze, inkesta edo ziurtagirien kudeaketarako eta bere jarduerak dakartzan funtzio administratiboetarako, horretarako baimena emanaz.

11.- Izaera pertsonaleko datuen trataera konfidentzialtasun osoz burutuko dela jakinarazi zaie eta KITEB ASFEDEBUK Izaera Pertsonalaren gainean indarrean dagoen araudia betetzen duela, beraien fitxategiak dagozkion erregistroetan sartu direlarik.

12.- Ikasleak edo bere ordezkari legalek sarrera, zuzenketa, ezeztatze eta aurkariatze eskubideak burutu ahal dituztela idatziz KITEB ASFEDEBIRA zuzenduta.

13.- Interesdunak eta bere ordezkari legalek espresuki baimentzen dute KITEB ASFEDEBIK posta edo bitarteko elektronikoko bidez burutuko diren jardueren berri emateko.

14.- Dokumentu hau sinatzeak aurretik ageri dien guztia onartzea dakarrela jakinarazi zaiela, oharrak atalean salbuetsita ageri daitekeena izan ezik.

Ikaslearen sinadura

OHARRAK:

.....
.....
.....
.....